



Goardia Zibilaren eta Poliziaren jardunak protestak eragin ditu.

Beste bederatzi lagun atxilotu dituzte azken bi egunetan

DONOSTIA

Bederatzi lagun atxilotu zituzten herenegun goiza eta atzo bitartean, Parise, Durango, Oiarzun, Hernani, Bilbo, Donostia eta Gasteizen. Hernanin eta Oiarzunen atxilotutako lau lagunak Madrilera eraman zituzten, 'Donostia komandoari' laguntza ematea leporatzen baitiete. Auzitegi Nazionalen deklaratzeko zain daude hauek.

Xabier Galparsoro Gomaio zumaier errefuxiatua herenegun arratsaldeko 3.30etan atxilotu zuten Durangon. Ramiro Bermudez ere herenegun atxilotu zuten Donostian. Goardia Zibilak atzo goizaldean Gipuzkoan beste zenbait atxilotu egin zituen: Hernanin 30 urteko Manu Arozena Iriberrri, 22ko Mikel Iturbe Iturzaeta eta 30eko Begoña Arrondo Iruin; Oiarzunen 30 urteko Maite Elizegi Mitxelena. Bilbon 26 urteko Borja Irizar Beldandia abokatua atxilotu zuten goizaldeko lau t'erdietan.

Julia Aldasoro Aranburu Pasai Donibaneke 52 urteko errefuxiatua atzo goizean atxilotu zuten Parisen Renseignements Generaux informazio zerbitzuek. Marian Rios Irastorza laudiotarra Gasteizen atxilotu zuten gainera, atzo goizean baita ere.

Gipuzkoan atxilotuak Madrilgo Goardia Zibilaren Zuzendaritza Nagusira eraman zituzten,

1991ko abuztuan deseginako 'Donostia komandoari' laguntza ematea leporatzen baitiete. Lau lagun horiek Entzutegi Nazionalen deklaratzeko zain daude.

Borja Irizar Goardia Zibilaren Basauriko egoitzara eraman zuten eta inkomunikaturik egon zen. Irizar ere 'Donostia komandoarekin' lotu dute.

Komando horren ustezko kolaboratzaileak atxilotzeari astelehen iluntzean ekin zion Goardia Zibilak. Gaur aipatutako atxilotuak gain, aurreko egunetan beste 14 lagun atxilotu ditu Goardia Zibilak 'Donostia komandoarekin' zerikusirik dutelakoan. Hamalau horietarik bat, Gurutze Iantzi, atzo hil zen. Atxilotuetatik bi aske utzi zituzten: Andoni Igarategi eta Jose Julian Irastorza, Gurutze Iantzi zenaren senarra.

Hiru kide hil egin ziren Morlans auzoan 1991ko abuztuan 'Donostia komandoa' deusezteko Goardia Zibilak egindako operazioan. Segurtasun Indarren arabera, hildako hiru komandokide haiei babesa eta laguntza eman zieten asteon atxilotuak.

Bestalde, Julia Aldasoro errefuxiatua atxilotu ondoren prefeturara eraman zuten. Aldasoro Parisen konfinatu zuten urtebete kartzelan eman ondoren. Josu Arkauz Arana etxean babestegatik zigortu zuten bera eta bere senarra.

Espainiako Gobernuak gertaerak argitzeko asmoa duela esan du

MADRIL

Gurutze Iantziren heriotza eta Xabier Galparsorori gertatutakoa argitzeko asmoa duela adierazi zuen atzo Alfredo Perez Rubalcaba espainiar Gobernuako Lehendakaria ministroak. Izan ere, Jose Luis Corcuera Barne ministroak parlamentuan bi auzi hauen gaineko zehaztasunak emango dituela esan zuen.

Barne Ministerioak gertaera hauei buruzko ikerketa «zehatz-mehatza» egiteari ekin diotela eman zuen aditzera. Ikerketa honen informazioa Estatuko Fiskal

nagusiari igorriko diola adierazi zuen. Corcuera ministroak berak izango duen informazio guztia parlamentuari berehala emango diola gaineratu zuen.

Perez Rubalcabak objektiboak izateko eskatu zien komunikabideei. «Biolentziaren aldekoek» informazioa «manipula» dezaketela esan zuen.

Bi gertaera hauen eragin sozialak ea Gobernuak kezkatzen duen galdetuta, Ministroak ez zuen erantzunik eman nahi izan. Dena den, Gobernuak objektibotasunari eutsiko diola bi auzi hauetan azpimarkatu zuen.

Gernikako Juntetxeko

istiluen epaiketa

Fiskalak ez ditu iraingarritzat jo Gernikako Juntetxeko gertaerak

HBko hautetsien aurkako auzia epaiaren zain geratu da

Gernikako Juntetxean Espainiako Juan Carlos I.ari 'Eusko Gudariak' kantatzeagatik izandako auzia epaiaren zain geratu zen atzo. Fiskalak estatuburuari eragindako irainen akusazioan atzera egin zuen arren, iskanbila publikoen akusazioari eutsi zion. Defentsak absoluzioa eskatu zuen.


INAKI URIARTE / MADRIL

Herri Batasunako hamahiru hautetsi eta LAIAko bi kide ohien aurkako auzia epaiaren zain geratu zen atzo. Fiskalak iskanbila publikoen akusazioari eutsi zion arren, ez du jada, iraingarritzat jotzen Espainiako estatuburuari 'Eusko Gudariak' abestu izana.

Fiskala bat dator hortaz 1983an Espainiako Auzitegi Gorenak ebatzi zuenarekin. Orduan, akusatu bakoitzari hiru hilabeteko aitzipenaldia ezarri zion bi egunez hautetsi abertzaleak epaitu dituen epaitegiak berak.

Auziperatuek zein atzo eta herenegun deklaratu zuten lekuak —Juan Jose Pujana, Carlos Garaikoetxea eta Emilio Geba— behin eta berriro azaldu zuten ereserki honek ez duela inolako zentzu iraingarrik.

Azken saioan Gernikako saioak ez zuela izaera parlamentariorik izan frogatzen saiatu zen fiskala. Ekintza parlamentarioa izatekotan hautetsiek legeak ematen dien babes edo zigorgabetzea izango luketelako.



Duela hamabi urteko gertaeren bideoa ikusi zuten epaiketan.

Rogelio Gomez fiskalak lau arrazoi eman zituen Gernikako EAEko Parlamentuak eta hiru herrialdeetako Batzar Nagusiek burutu zuten batzar bateratuei izaera parlamentarioa kentzeko.

Fiskalak «txantxa juridikotzat» jo zuen Batzar Nagusiek izaera parlamentarioa dutela esatea, ezen «ez dute ahalmenik legeak egiteko». Zigorgabetzerik izatekotan soilik zortzi auziperaturentzako izan zitekeen.

Gaizerrendarik ez egotean ekitaldiak ez zuten balio parlamentariorik, fiskalaren ustez. «Ez zegoen gaiordenik ez zegoelako zertaz eztabaidatu» argitu zuen. Haren eredu jarri zuen batzarreko aktarik ez jasotzea. Azkenik, fiskalak azaldu zuen hautetsiek gonbidapen hutsa jaso zutela, ez dei ofizialik.

Fiskalak halere, era sinbolikoan bada ere hasierako kalifikazioa aurkeztu zuen definitibotzat.

DEFENTSAK
ABSOLUZIOA
ESKATU DUMiguel Castells,
Iñigo Iruin,
Adolfo Araiz

—Herri Batasunako hautetsien izenean— eta Teodoro Mota —LAIAkoen izenean— ez ziren bat etorri fiskalaren iritziarekin. Gernikako Juntetxeko parlamentarioen zentzu politiko eta parlamentarioa berretsi zuten biek ere, eta ekitaldian ez zela iskanbila publikorik egin frogatzen saiatu ziren.

Letratuek ez zituzten ezkatu epaiketak izan dituen ezaugarri politikoak.

TVE-k, 1981eko otsailaren 4ean eskaini zuen bideoaren ikusketak ez zuten berritasun handirik ekarri.

Arratsaldeko saioa hastean, auzipetuek Madrilgo eta Bilboko gertaerak aipatu zituzten eta ondoren zutik jarrita minutu bateko isilunea gorde zuten Gurutze Iantziren omenez.

Idigoras: «Ez gara makurtuko»

I.U. / MADRIL

■ Jon Idigorasek epailearen aurrean eginiko azken mintzaldia «Euskal Herriak jasaten duen errepresioa» salatzen profitatu zuen.

«Estatu espainiarrak Euskal Herriaren aurka erabiltzen duen errepresioa gero eta bortitzagoa da, gure herriaren eskubideak zapaltzeko erabiltzen duen neurri berekoa». Herri Batasunako bozeramailearen ustez, Gurutze Iantziren heriotza Goardia Zibilaren komandantzia «jasaten eta ordaintzen ari garen Estatu espainiarraren intransigentziaren froga dramatikoak da».

Iantziren heriotza une horretan amaitzeaz zegoen epaiketari lotuz, bozeramaile abertzaleak agerian utzi zuen HBk ez duela onartuko Espainiako Erregearen bisitarik Euskal Herrira «jarrera bortitza, errepresioaren praktika honek eta gutxienezko eskubideek zapalduta irautesen duten bitartean».

Espainiako Erregeari zuzenduz, «jakin beza Estatu espainiarrereko buruak ez gabela makurtuko eta ez dugula atzera egingo gure eskakizunetan gure aurkako epaiketa eta irain ugari egin diren arren ere».

Jon Idigorasek dei egin zion Madril bere jarduerara aldatu eta

bake konponbideak ekar ditzakeen jarrera hauta dezan.

Buruzagi abertzaleak Madrilgo Auzitegi Gorenean burututako auzitegiaren funtsa argibiatu zuen. «Epaiketa hau Euskal Herriarentzako iraingarria izan da, eta bereziki beronen demokrazia, eskubide eta askatasunerako». Burukide abertzalearen aburuz «iraingarria da euskal herritarrek aukeratu duten euskal diputatu bat auzitegi espainiar batean epaitua izatea».

Idigorasek berretsi zuenez atzo amaitu zen epaiketa «iraingarria da espainiar izan gabe euskal herritar soilik izan nahi dutenentzat».